

OHIKO GALDERAK

2017/18

UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA (USE)

➤ Zenbat balio du Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioko matrikulak?	Deialdi bakoitzean: 84,43€ matrikula arrunta 42,21€ familia ugari orokorrekoa 0,00€ familia ugari bereziko, eta bestelako kasuak
➤ Batxilergoko ikasle guztiak matrikulatu behar dira?	Ez, bakarrik probara aurkezteko asmoa daukaten ikasleak. (Matrikula Batxilergoko behin-betiko nota grabatzean egiten da).
➤ Ebaluaziora ez aurkeztea erabakitzen badut, zer egin behar dut?	Azkenean erabakitzen baduzu azterketara ez joatea zure ikastetxeak matrikula baliogabetzeko eskaria egin beharko du idatziz Sarbide Bulegoan edo Campuseko Errektoreordetzan, beti ere 2017ko ekainaren 7a baino lehen (ohiko deialdia) edo 2017ko uztailaren 5a baino lehen (ezohiko deialdia).
➤ Zer gertatzen da azterketara ez banoa eta matrikula baliogabetzen ez badut?	Tasa ordaindu behar duzu. Azterketara ez joanagatik matrikula ez zaizu baliogabetuko.
➤ Unibertsitatera sartzeko probetako matrikula ordaindu ezean...	Unibertsitateak zorduntzat joko zaitu, eta ezin izango zara unibertsitateko zerbitzuez baliatu harik eta ordaindu arte.
➤ Ohiko deialdian gaintzen ez badut...	Sarbide Bulegora edo campuseko errektoreordetzara joan beharko zara ezohiko deialdian matrikulatzeko, edo matrikula web orrian egin (http://www.ehu.eus/eu/web/sarrera-acceso/)
➤ Zergatik eman behar ditut banketxeko datuak?	Banketxeko datuak beharrezkoak dira sarrera probetako tasen ordaintzeta helbideratzeko.
➤ Banketxeko daturik ematen ez badut, zelan ordain nitzake sarrera probetako tasak?	Leioako Sarbide Bulegora edo Campuseko Errektoreordetzara joan beharko zara tasak ordaintzera, honako egun hauetan joan ere: 2017ko ekainaren 5ean eta 6an ohiko deialdirako 2017ko uztailaren 3an ezohiko deialdirako
➤ Zenbat fase ditu Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USE)?	USEk bi fase dauzka: sarbide fasea eta onarpen fasea. Sarbide fasea derrigorrezkoa da, eta onarpen fasea, berriz, borondatezkoa.
➤ Lanbide Heziketako ikaslea naiz. USEra aurkez naiteke?	Bai, onarpen fasera , nota hobetzeko
➤ Nola dago egituratuta sarbide fasea?	1. ariketa: Gaztelania eta Literatura II. 2. ariketa: Euskara eta Literaturako II 3. ariketa: Espainiako Historia 4. ariketa: Atzerriko hizkuntza. (alemana, frantsesa, ingelesa) 5. ariketa: Batxilergoko 2. Mailako derrigorrezko modalitateko gaia.
➤ Nola dago egituratuta onarpen fasea?	Ikasleak, gehienez, Batxilergoko 2. mailako modalitateko 4 enborreko irakasgaren azterketa egin dezake (betiere sarbide faseko modalitatekoak ez direnak). Irakasgai horiek egin nahi diren ikasketekin lotuta egongo dira.
➤ Zertarako balio du onarpen fasera aurkezteak?	Onarpen nota igotzeko.
➤ Zenbat denbora dut azterketak egiteko?	Azterketa bakoitza egiteko 1:30 ordu izango duzu, eta azterketen arteko tartea 45 minutukoa izango da.
➤ Zer gertatzen da bi azterketa ordu berean badauzkat?	Bi horiek bata bestearen ostean egingo dituzu, ikasgelatik irten gabe, epaimahai berarekin eta dagokien egunean. Dena dela, zure egoeraren berri eman beharko diozu epaimahaiari.
➤ Nola kalifikatzen dira sarbide faseko azterketak?	Otik 10era kalifikatzen dira, bi dezimalekin. Sarbide faseko azterketa guztien kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da.

➤ Nola kalifikatzen dira onarpen faseko azterketak?	Irakasgaiak 0tik 10era kalifikatzen dira, bi dezimalekin. Irakasgaia gainditzeko, 5 edo gehiago atera beharko da. Gainditu ezean, ezin daiteke kontuan hartu onarpen notarako.
➤ Noiz ematen da unibertsitatera sartzeko proba gainditzat?	Batxilergoko batez besteko notaren %60aren eta sarbide faseko kalifikazioaren %40aren batez besteko haztatua 5 edo gehiago denean. Sarbide fasean, gutxienez, 4 puntu lortu behar dira.
➤ Zer gertatzen da unibertsitatera sartzeko ebaluazioaren sarbide fasea gainditzen ez badut?	Unibertsitatera sartzeko ebaluazioaren sarbide fasea gainditzen ez baduzu, ezin izango zara sartu bide horretatik graduko ikasketetara.
➤ Onarpen fasean irakasgairen bat gainditzen badut, balio al dit nota horrek sarbide fasea gainditzen dudanerako?	EZ. Onarpen faseko ariketak gainditzeak bakarrik izango du ondoriozik baldin eta sarbide fasea deialdi berean edo aurrekoetan gainditzen baduzu.
➤ Nota igotzeko onarpen faseko irakasgai guztiek balio al didate?	EZ. Egin nahi duzun graduari dagokion jakintza arloko irakasgaiak hartuko dira kontuan.
➤ Unibertsitatera sartzeko ebaluazioan, zenbat deialdi egiten dira urtean eta zenbat aldiz aurkez naiteke azterketara?	Bi deialdi: ekainean eta uztailean. Hainbat deialditara aurkeztu ahalko zara , sarbide faseko kalifikazioa hobetzeko eta/edo onarpen faseko edozein irakasgaiko kalifikazioa hobetzeko. Kalifikazio onuragarriena hartuko da kontuan.
➤ Noiz arteko balioa dute unibertsitatera sartzeko ebaluazioko notek?	Sarbide faseak mugagabeko balioa dauka, ez da iraungitzen. Onarpen fasekoak bi ikasturterako balio du, sarrera proba gainditzen duzunetik hasita.
➤ Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa egin dut, baina sarrera nota hobetu nahi nuke. Zer egin dezaket?	Berrito egin beharko duzu sarrera probetako sarbide fasea edo, bestela, onarpen fasea baino ez, hobetu nahi dituzun irakasgaietarako, kontuan izanda ezarritako parametroak eta egin nahi duzun gradua.
➤ Ez banago ados kalifikazioarekin, zer egin dezaket?	Epaimahaiari ariketen berrikusteko eskatu ahal diozu..
➤ Berrikustea egiteko epea	3 egun baliodunekoa izango da , kalifikazioa argitaratzen denetik kontatzen hasita.
➤ Azterketa zuzenduta ikusteko eskubidea dut?	Zuzenketa edo berrikusketa prozesu osoa amaitu ondoren, eskubidea izango duzu zuzendutako azterketa ikusteko (horretarako aurrez eskaera eginda).
➤ Noiz eskatu ahal izango dut azterketa ikustea?	- Ohiko deialdia: 2017ko ekainaren 29 eta 30a - Ezohiko deialdia: 2017ko uztailearen 26a
➤ Unibertsitateko ikasketak egiteko onarpen nota	$\text{Onarpen-nota (GON)} = 0,6 \cdot \text{BK} + 0,4 \cdot \text{SFK} + \text{C1} \cdot \text{M1} + \text{C2} \cdot \text{M2} + \text{C3} \cdot \text{M3}$ <p> BK = batxilergoko kalifikazioa SFK = sarbide faseko kalifikazioa C1, C2, C3 = haztapan koefizienteak M1, M2, M3 = gainditutako irakasgaien kalifikazioak, UPV/EHUK bere ikasketetan onartua izateko ezarritako irizpideei jarraituz. </p>
➤ Beste unibertsitate batean onartu naute, eta espedientea lekuz aldatu behar dudala esan didate. Zer egin behar dut?	Sarbide Bulegora edo campuseko errektoreordetzaren batera joan eta ondoko agiriak aurkeztu: <ul style="list-style-type: none"> - Beste unibertsitateko onarpen gutuna edo matrikularen ordainagiria. - Ordaindu beharreko tasen ordainagiria (tasak murrizteko eskubidea baduzu, egiaztagiri eguneratua). - Ordaindu beharreko tasen ordainagiria.

<p>➤ Batxilergoko ikastetxe batean ez banago matrikulatuta, non egin behar dut unibertsitatera sartzeko ebaluazioko matrikula?</p>	<p>Aurreko deialdietan aurkeztu bazara, gure web gunean: http://www.ehu.eus/eu/web/sarrera-acceso/.</p> <p>Bulego hauetako batean:</p> <p><u>Arabako Errektoreordetza:</u> Izardui komandantea, 2 – Gasteiz</p> <p><u>Gipuzkoako Errektoreordetza:</u> Ignacio M. Barriola eraikina - Elhuyar plaza, 1-Donostia</p> <p><u>Sarbide Bulegoa –</u> Ikasgelategia I, beheko solairua – Leioa</p> <p>Larrako Etxea – Lehendakari Agirre etorb., 83 - Bilbo</p> <p>Ohiko deialdia: 2017ko maiatzaren 29an eta 30ean</p> <p>Ezohiko deialdia: 2017ko ekainaren 26an</p>
--	--

UNIBERTSITATEAN IZENA EMATEA

<p>➤ Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen bidez unibertsitaterako izena eman eta gero, beste gestioen bat egin behar dut UPV/EHU sartzeko?</p>	<p>Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioko (EAU) azterketa gaindituz gero, interneten bidez Unibertsitateko web orrian eskaria berretsi egin beharko duzu, honako egun hauetan: www.sarrera.ehu.es</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2017ko ekainaren 19tik 23ra — ohiko deialdia - 2017ko uztailaren 17tik 21era — ezohiko deialdia <p>Izena emateko eskaria BERRETSI ezean ikasleak ezin izango du matrikula egin</p>
<p>➤ Zer egin behar dut izena emateko eskaria berresteko?</p>	<p>Modu hauetara egin dezakezu: Internet bidez edo unibertsitaterako sarbide bulegoetara edo campuseko errektoreordetzetako batera joanez.</p>
<p>➤ Zenbat gradu eska ditzaket?</p>	<p>8 gradu arte eska ditzakezu, lehentasun ordena zorrotzean.</p>
<p>➤ Ordena garrantzitsua al da?</p>	<p>Bai, oso garrantzitsua. Izan ere, onarpena ikasleak markatutako ordenaren arabera egiten da.</p>
<p>➤ Zer gertatzen da 2. aukeran onartzen banaute eta nik lehenengoa nahi badut?</p>	<p>Onartua izan zaren graduan matrikulatu behar zara, interesatzen bazaizu; gero, zain egon ea onartuen hurrengo zerrenda argitaratzen denean toki hutsik dagoen zuk nahi zenuen titulazioan.</p>
<p>➤ Zelan jakin nezake noiz egin behar dudun unibertsitateko matrikula?</p>	<p>ONARTUEN ZERRENDAK argitaratuko dira (http://www.ehu.eus/eu/web/sarrera-acceso/), matrikula egiteko egun eta orduaren berri emateko. Zerrendak data hauetan argitaratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2017ko uztailaren 15ean, ohiko deialdirako - 2017ko uztailaren 29an, ezohiko deialdirako <p>Etxera ez da gutunik bidaliko</p>
<p>➤ Badago itzarote zerrendarik?</p>	<p>Bai.</p>
<p>➤ Goi mailako prestakuntza ziklo bat egin badut, nik ere berretsi behar dut izena emateko eskaria?</p>	<p>Ez, goi mailako prestakuntza zikloetako ikasleek ez dute izena emateko eskaria berretsi behar, euren ikastetxearen bidez eman baldin badute izena.</p>
<p>➤ Itzulpengintza eta Interpretazioko graduan matrikulatu nahi badut, nahikoa da izena emateko eskariarekin?</p>	<p>Ez, izena emateaz gainera, Itzulpengintza eta Interpretazioko graduan sartzeko proba espezifikoa gainditu beharko dituzu.</p> <p>Proba horietarako matrikula 2017ko maiatzaren 12tik 19ra egin behar da, egun bi horiek barne, Gasteizko Letren Fakultatean edo web gunearen bidez.</p>
<p>➤ Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzien graduan matrikulatu nahi badut, nahikoa da izena emateko eskariarekin?</p>	<p>Ez, izena emateaz gainera, Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzien graduan sartzeko proba espezifikoa gainditu beharko dituzu.</p> <p>Proba horietarako matrikula 2017ko apirilaren 19tik 26ra egin behar da, egun bi horiek barne, Gasteizko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean, edo web gunearen bidez.</p>
<p>➤ Batxilergoko ikastetxean ez dut egin izena emateko eskaria, nola eta noiz egin</p>	<p>Izena emateko epea 2016ko ekainaren 20tik uztailaren 4ra izango da, biak barne. Eskaria http://www.ehu.eus/eu/web/sarrera-acceso/ web orrian egin daiteke edo posta ziurtatuz bidali Sarbide Bulegora dagokion dokumentazioarekin.</p>

<p>behar dut izena emateko eskaria?</p>	
<p>➤ Ea onartuta nagoen jakiteko, zer egin behar dut?</p>	<p>Onartuen zerrendak http://www.ehu.eus/eu/web/sarrera-acceso/ web orrian argitaratuko dira.</p>
<p>➤ Nolako da ikasleak UPV/EHUn onartzeko prozedura?</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleak onarpen notaren arabera ordenatzen dira eskatutako gradu bakoitzean. - Onartuen zerrenda bat argitaratzen da eta zerrenda horretan ikasleari plaza bakarra esleitzen zaio gradu bakarrean. Zerrenda argitaratzearekin batera, ikasleari hitzordua jartzen zaio matrikula dadin. Une horretatik aurrera, ikaslea: - Itxaron zerrendan geratzen da onartua izan den titulazioaren aurretik eskatuak zituen titulazioetan. - Baztertuta geratzen da onartua izan den titulazioaren ondotik eskatuak zituen titulazioetan. - -Ikasle bat titulazio batean onartu badute eta ikasleak ikasketa horiek egin nahi baditu, adierazten zaion egunean egin behar du matrikula. Ez badu matrikula egiten, plazari uko egiten diola ulertzen da. Itxaron zerrendetatik ez dute inolaz ere kanporatuko. - Lehenengo matrikulaldia bukatutakoan, hutsik dauden plazak erreperatzen dira, itxaron zerrendan dauden ikasleei esleitzen zaizkie eta onartuen zerrenda berri bat argitaratzen da. - Eta horrela, plaza guztiak esleitu arte.
<p>➤ Noiz arte egon naiteke itxaron zerrendan?</p>	<p>Gradua ixten den arte.</p>
<p>➤ Goi mailako prestakuntza ziklo bateko ikaslea banaiz, gradu guztietarako sarbidea izan al dezaket?</p>	<p>Bai</p>
<p>➤ Goi mailako prestakuntza zikloko ikaslea banaiz, zein da nire onarpen nota?</p>	<p>$\text{Onarpen-nota (GON)} = \text{ZBN} + \text{C1} \cdot \text{M1} + \text{C2} \cdot \text{M2} + \text{C3} \cdot \text{M3}$</p> <p>ZBN = prestakuntza zikloko batez besteko nota M1, M2, M3 = gainditutako irakasgaien kalifikazioak C1, C2, C3 = haztapan parametroak.</p>
<p>➤ Gradu batean baino gehiagotan onartuta egon naiteke?</p>	<p>Ez, onarpena bakarrik da gradu batetarako zuk eskarian zehaztutako hurrenkeraren arabera.</p>
<p>➤ Nola jakin dezaket zein egoeratan dagoen UPV/EHUn sartzeko egin dudana eskaera?</p>	<p>Webean begiratu behar duzu</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izena emateko eskariaren kontsulta.

1. MAILAKO MATRIKULA

<p>➤ Zer gertatzen da matrikula egiteko hitzordura berandu helduz gero edo data pasatuz gero?</p>	<p>Dagokizun egunean ez bazoaz matrikula egitera, gal dezakezu plaza, beste norbait onartu badute.</p>
<p>➤ Noiz egin dezaket behin-behineko matrikula?</p>	<p>Dokumentu bidez (beste unibertsitate batean egindako eskaria aurkeztuz) egiaztatzen baduzu beste unibertsitate batean onartzearen zain zaudela, behin-behineko matrikula egin ahal izango duzu.</p>
<p>➤ Zeintzuk dokumentu behar ditut matrikula egiteko?</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Estatistika datuen inprimakia. - NAN edo pasaportearen fotokopia - Argazki bat, atzeko aldean izena eta abizenak dituena - Matrikularen ordainketa helbideratzeko agiria - Matrikulako prezio publikoetatik salbuetsita egoteko edo prezio murriztua ordaintzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria, ikasketa zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezioak finkatzeko Eusko Jaurlaritzak onartzen duen aginduaren arabera (pertsona ezinduak, familia ugariak, guraso bakarreko familiak, ekintza terroristen biktimak, genero-indarkeria eta bestelako kasuak). - Beka eskaria edo eskariaren gordekina, beka eskatu gura izanez gero. - Gizarte Segurantzako afiliazio agiria eskola aseguratuko (informazio telefonoa: 901502050)
<p>➤ Matrikula ordaintzeko zeintzuk modalitate daude UPV/EHUn?</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Bankuko kontu bat ematea horra helbideratzeko (2 epe gehienez ere) - Ordainagiri pertsonalizatua (2 epe gehienez ere)
<p>➤ Joan daiteke beste pertsona bat nire ordez matrikula egitera?</p>	<p>Bai, beti ere ikaslearen ordez doan pertsona idatziz baimendua bada eta hitzorduaren egunean eta orduan agertzen bada behar diren dokumentuekin.</p>
<p>➤ Non egin behar dut matrikula?</p>	<p>Ikasketak eskaintzen diren ikastegiko idazkaritzan. Ikastegi horren helbidea onarpen zerrendetan agertuko da.</p>